

2026 MAIATZAREN LEHENA

SMI
1.500€

JOTAKE
HEMEN

ERABAKI
ARTE

MITXEL LAKUNTZA:

“Ez gara geldituko LGS propioa lortu arte; ELA ez dago hemen gaitz txikiena kudeatzeko”

2026ko MAIATZAREN LEHENAREN HITZALDI OSOA (Bilbo):

Inperialismoaren eta NATOren aurka

Maiatzaren Lehena mundu hobe baten alde borroka egiteko aukera bat da beti. Kapitalismoa eta inperialismoa zabaltzen ari den honetan, guk Maiatzaren Lehenaren baloreak aldarrikatu nahi ditugu.

Txikizio, miseria eta heriotza dakarren eredu kapitalista basati horren aurrean, ikuspegi matxista eta patriarkalak sortutako indarkeriaren apologiaren aurrean, Maiatzaren Leheneko baloreak aldarrikatu nahi ditugu. Irango gerra, Libanoaren okupazioa edo Palestinako genozidioaren aurrean, Maiatzaren Lehenaren baloreak aldarrikatu nahi ditugu.

Venezuela, Groenlandia edo Kubaren soberaniaren aurka egiten diren mehatxu eta erasoen aurrean guk Maiatzaren Lehenaren baloreak aldarrikatu nahi ditugu, orain inoiz baino gehiago Kubarekin gaude, blokeoren kontra, hamarkadatan oihukatu den bezala: "YANKEE KANPORA!"

Munduak bi arrisku nagusi ditu: Trump eta Netanyahuren gobernuak. Egin dutena ez omen da nahikoa Europako Batzordea bi gobernu hauengandik aldentzeko. Tamalez, aspaldian, Europa Trumpen eta Israelen txotxongiloa da. Men egiten die bi gobernu despota hauei.

Eta horixe da Confebaskek eta Garamendik nahi dutena. Beste aldera begiratzeko deia egin dute, munduko bakerako mehatxu nagusiak ez molestatzeko deia egin dute. Giza eskubideen, bakearen edo justizia sozialaren orde ez interes ekonomikoak lehenesten dituzte.

Berriz diogu: Israeli ezin zaio ezer erosi, ez ezer saldu.

Guk, ordea, Maiatzaren Lehenaren baloreak aldarrikatu nahi ditugu. Eta zeintzuk dira balore horiek? Bakea, elkartasuna, feminismoa, askatasuna, bizitza... Honegatik guztiagatik, gure bokazio internazionalistatik, aurten inperialismoa salatuta eta herrien subiranotasuna aldarrikatu nahi dugu.

Aurten bereziki, Euskal Herriak erreferendum baten bitartez NATOri ezezkota eman ziola 40 urte bete direnean, agindu hori aldarrikatzen jarraitzen dugu. Leloak dioen bezala: "*OTAN y Capital, alianza criminal*".

LGS, hemen erabaki

Duela gutxi greba orokorra egin dugu hemen erabakitako gutxieneko soldataren alde. Hiru helburu nagusi lortu ditugu: borroka honetan gure herriko langile-klasea inplikatzeko, aldarri haren kontrako

alderdi, sindikatu eta gobernuei argudioak kentzea, eta batez ere, gizartean gehiengoak bere egitea hemengo gutxieneko soldataren aldarria.

Hori da gure altxorra, prozesu guztian langile klasearen eta gizartearen aldetik izan dugun babes: Babes hau erakutsi du herri-ekimen legegilearen aldeko sinadura bakoitzak, patronalak negoziatzea ukatu digun aldioro egin ditugun protestek eta geldiaraztea lortu dugun lantoki bakoitzak.

Ez dugu nahi beste inork gure izenean erabakitzerik; ez dugu nahi inork Madrildik bere prekaritatea inposatzerik, izan ere, esatea gutxieneko soldata hobetzea insolidarioa dela espainolista da, eta gurean ezin da erraz saldu: alderdiek eta sindikatuek esaten dutenean 1.200 euroko soldata 1.500 eurokoa baino hobea dela adarra jotzen ari dira egoerarik okerrean dauden langileei. Izan ere, 1.500 euroko gutxieneko soldata aldarrikaten dugu herri honetako milaka eta milaka emakumeren bizimodua hobetzeko: 1.500 euroko gutxieneko soldatarekin justizia feminista lortu nahi dugu.

Halakorik nahi ez dutenen arrazoia ideologikoa da; espainolismoa eta zentralismoa baliatzen dituzte prekaritatea hedatzeko. Horregatik ez dute nahi hemen soldata apalenak handitzeko ahalmenik izatea. Horregatik ere da Confebask zentralista eta espainolista.

Behin eta berriz esan dugu: ez dugu etsiko hemengo gutxieneko soldata lortu arte. Maiatzaren Leheneko mezua argia da: "Jo ta ke, hemen erabaki arte" .

Aurtengo Maiatzaren Lehena gutxieneko soldataren aldeko borrokari bultzada eman nahi diogu; hori lortzeko gure konpromisoa adierazi nahi dugu. Eta lanean jarraituko dugu bide berriak urratzeko. Lan egingo dugu gutxieneko soldata hemengo agenda politikoan ager dadin. Berriro diogu: gutxieneko soldata auzi politiko bat da.

Elkarrizketa Sozialaren Mahaia

Gaur arte lehendakariak hemengo gutxieneko soldataren kontra egin du; bere alderdiak ezezko botoa eman du, PSE, PP eta Voxek bezala; inoiz jarrera neutrala hartu du.

Duela egun batzuk Lehendakariak eta bere gobernuak erantzun okerragoa eman dute, ordea: ELAri eta LABi mehatxua bota diote, parte-hartze instituzionaleko lege berri bat egingo dutela, eta horrek ondorioak izango dituela "elkarrizketa sozialeko mahaian" parte hartzen ez badugu; benetan ezertarako balio ez duen mahaia, baina propagandarako erabiltzen dena.

Lehendakariordeak esan duenez, saritu egingo ditu mahai horretara doazenak. Gobernuak eta patronalak antolatzen duten teatro horretan parte hartzeko prest daudenak: Teatroa, zerbait egiten dela antzeztu, benetan ezer negoziatzen ez denean.

Mahai hori antidemokratikoa da, bestalde: gehiengoa ez da errespetatzen (UGT eta CCOO ez dira ia ordezkartzaren % 28ra ere iristen); haatik, oraingoan erabaki autoritario batekin jauzia eman nahi dute, herri honetako gehiengo sindikalari erasotzeko.

Zergatik egiten dute hori? Hemengo patronalak eta gobernuak ez dutelako onartzen herri honetako langileriak ez dituztela euren gustoko gehiengoak hautatu. Areago, langileek erabaki dute ELA izatea, alde handiz, sindikatu nagusia. Hauteskunde sindikaletan beharginek erabaki demokratikoz ELAri ordezkartzaren % 40 eman diote Araba, Bizkai eta Gipuzkoan.

Horregatik ezin da normaltasun demokratikoan sartu gutxieneko joko-arauak urratzea, sindikatu batzuei ordezkartza bat ematea langileek bozkatu ez dutena.

Pradalesen gobernuak lege proiektu hori berehala erretiratu behar du; UGT, CCOO eta negoziatu nahi ez duen patronal bat saritu ordez 1500 euroko gutxieneko soldata baten alde egin beharko luke, eta Confebask estutu negoziatzera eser dadin.

Negoiazio kolektiboa / EEeak

ELAk borrokan jarraitzen du 1.500 euro gutxienez enpresa askoren soldata izan dadin: Bizkaiko garbiketak, Metropolitan gimnasioa, Forum, Uber, Bizkaiko kontserbak, Hine... Gipuzkoako egoitzetan ere borrokak jarraitzen du, 175 egun daramatzatelako greban, edo Bizkaian, adibidez, Arrigorriagako Arandia Zahar egoitzan. AvanzaBusen greba mugagabea hasiko da, udaletan lanuzte eta greba dinamika bat hasi dugu, Arabako Aldundian ere mugitzen ari gara, edo hor daude Txingudiko Txinzer enpresa publikoko langileak: gure jendeak 117 greba egun daramatza.

Gaur ere gogoan ditugu enplegua bermatzeko borrokan sartuta dauden langile guztiak. EEeak eta kaleratzeen kontra borrokatzen diren lantalde guztiak. Esaterako, Previnsa Mercedeseko suhiltzaileak, Tubos Reunidos, Maderas de Llodio, Papresa, Sidenor.

Une zailak dira hauek. Eta halako uneetan erabaki behar du sindikatu batek bere eginkizuna zein den. ELAk aspaldian erantzun zion galdera horri: sindikatuaren eginkizuna ez da kaleratzeak erraztea; sindikatua ez dago erdibideko kalteak ontzat emateko.

Sindikatuaren xedea ez da enpresak nahi duena bozkatzea, Tubos Reunidosen gertatu zen bezala; sindikatuak ezin ditu batzuek saldu besteen hobe beharrez; sindikatuak enpleguari azkeneraino eutsi behar dio. Azken epaitegira arte, behar izanez gero, Guardianen egin genuen bezala; komunikabideen, alderdien eta beste sindikatu batzuen presioaren gainera, enplegu-erregulazioko espedientearen inpugnazioa epaitegi batera eraman genuen, enpresako arduradunentzako akusazio penala barne.

Eta garaipenak ere badaude, asko: Bizkaiko Grafikoak, Arabako Egoitzak... eta estatalizazioaren aurkakoak, bi kasu oso garrantzitsu: Kolektibitateen Hitzarmena eta gure hitzarmenak errespetatzeko klausula ARTEren negoziazioan (ehungintzako enpresa handien patronala).

Scientia Karmelo (Donostia) eta JM (Bilbo) ikastetxeetan, biek EEeak baliogabetzat jo dituzte. Edo Pasaiaiko etxez etxeko langileek, 108 greba-egunen ostean hitzarmena berri biltzen, % 30eko soldata-igoerarekin. Edo Beasaingo edo Azkoitiko etxez etxeko lankideak, adibidez...

Eta, jakina, eguneroko borroka feminista honetan, ELAk duela gutxi mugarririk historikoa bat gainditu du: **dagoeneko 50.000 emakume baino gehiago afiliatuta daude sindikatuan.**

Zorionak! Merezi izan du.

Langile klase bera gara

ELA sindikatu antirrazista da. Migranteak kriminalizatzen saiatzen direnen aurka, lantoki bakoitzean antolatuz eta borrokatuz gogoratzen du gizarte honetan esplotaziorik handiena pairatzen dutenek eskubideak dituztela, ekarpen handia egiten dutela eta duintasuna zor zaiela. Ekarpen sindikalik onena da egoera okerrean daudenen zerbitzura jartzea. Horregatik poztzen gara sindikatu honetan afiliatu berrien laurdena migrantea dela. Horregatik poztzen gara migrante gero eta gehiago ordezkaririk izateko hautatzen dituztenean. Horregatik ospatzen ditugu bereziki hainbat greban izandako garaipenak: Cecosa (Eroskiko Elorrioko biltegia) adibiderik behinena da, bat aipatzeagatik.

Euskaraz bizi eta lan egiteko eskubidea

Eskubideak aldarrikatzen ditugu Maiatzaren Lehenean. Betetzen ez den beste eskubide bat aldarrikatu nahi dugu gaurkoan: Euskaraz bizitzeko eta lan egiteko eskubidea. Adostasuna behar dela diote alderdi batzuek; adostasuna zapalkuntza bat ezkutatzeko? Guk bestelako adostasun bat nahi dugu. Euskara eta erdara juridikoki parekatuko duena: hori da ELArentzat gutxieneko eskakizuna.

"Esnatu ala hil", dio euskararen egoerari buruz argitaratu den ikerketa batek. Gu bat gatoz lelo horrekin. Horregatik ez da adostasun ez-nahikoetan lokartzeko unea, baizik eta esnatzekoa.

Horregatik LAB eta Steilasekin batera manifestazio bat antolatu dugu maiatzaren 9an kale honetan.

Korrikaren bukaeran esan bezala, Euskal Herria euskalduna delako gure gutxieneko eskakizuna.

GORA Euskara!

Gora munduko langileria!

GORA Maiatzaren Lehena!